

BERRIGARA

1. zenbakia JARDUN Elkarte, Bergara 1996, ekainak 28

Gimnasia
erritmikoa
puntaren
puntan




1996KO URTEKO KOTXEA

Autoberezi

ANTIGUA AUZOA
ANTZUOLA

1996KO URTEKO KOTXEAK

FIAT *Alfa Romeo* 



Amaia Lurrindegia

Usaindegia eta oparigaiak

EMAKUME eta GIZONENTZAKO

EDERGINTZA

ORRATZIK GABEKO betirako depilazioa

TERMOSLIM METODOA


SOLARIUM ZERBITZUA

Aurpegiaren tratamendua (goiko ezpaina, okotza, patilak), bularra, bizkarra, besoak, bernak, izterrondoak, besapeak eta sabelaldea.

Barrenkale, 25 ☎ 76 16 97



Argitarapen honen edizioko laguntzaile:



**gipuzkoa donostia kutzaren
gizarte-ekintza**

Kutxa fundazioa

BERRIGARA

ERROTALDE JAUREGIA
20570 Bergara
☎ 76 03 97 • Faxa: 76 08 19

Argitaratzailea:

ARDUN Elkartea.

Zuzendaria:

Eneko Azkarate

Erredakzioa:

Eduardo Mendibil

Mikel Elkoroberezibar

Jone Larrañaga

Maketazioa:

Eneko Azkarate

Publizitatea:

Alex Azkarate

Harpidetzak:

Gorka Elortza

Testuen zuzenketak:

Estepan Plazaola

Mariji Laskurain

Alex Labaien

Erredakzio kontseilua:

Gorka Elortza

Miguel Angel Elkoroberezibar

Alex Labaien

Komikiak:

Bitor Rodriguez

Gorka Ortega & Jon Alvarez

Alex Ugalde

Unai Azkarate

Banaketa:

Txantxangorri taldea

Tirada:

4.000 ale.

Inprimategia:

Bertu Koop. Elk. (Zubillaga. Oñati)

Copyright:

BERRIGARA

Lege gordailua:

SS 50/91

ISSN:

1130-6599

BERRIGARAK ez du bere gain hartzen aldizkarian adierazitako eraberen eta iritzien erantzunkizunik.



Aldizkari honek Bergarako Udalaren laguntza jaso du



Aldizkari honek Gipuzkoako Foru Aldundiaren laguntza jaso du



Aldizkari honek Eusko Jaurlaritzaren Kultura sailaren laguntza jaso du

Z E B E R R I D A ?

FERNANDO IDIGORAS


Odol emaleen presidentea

- Aurtengo odol ateraldiari buruz, nolako balantzea egiten duzue?

- Balorazio positiboa egin beharreen gaude. Datuak hor daude: Bergaran 1.400 odol emale gara, horietatik 900 bat lagun odol emale aktiboak direlarik. Hilero 120 lagun inguru etortzen dira odola ematera. Asteazkenean 63 lagun etorri ziren eta aurrekoan, berriz, beste 57 lagun. Gure mailako herrien artean odol emale gehien duen herrietako bat da Bergara. 1.000 biztanleko 70 odol ateraldi egiten dira gure herrian eta hori kopuru altua da.

- Odol emale berririk joaten da?

- Jende gaztea badoa piskanaka-piskanaka



mentalizatzen eta esker-tzekoa da. Ekainean 14 odol emale berri egin ditugu eta asko da hori. Orain lehen aipatutako odol emale pasiboak gehiagotan etortzea komeniko litzateke.

- Udan ere odol ateraldiak izango dira...

- Horrela da bai. Hurrengoak uztailaren 10ean eta 24ean eta abuztuaren 7an egingo ditugu.

"Odol emale pasiboak direnak gehiagotan etortzea komeniko litzazuke"

I T U R R I O N E T I K

Gorlako kantina hartzeko eskaera bakarra jaso da Udaletxean

Gorlako kantina hartzeko eskaera bakarra aurkeztu da Udaletxean eta astelehenean erabakiko du Gobernu Batzordeak kantina nori adjudikatu. Udalaren asmoa kantina lehenbailehen zabaltzea da, dagoeneko udan sartuta gaudelako. Urte osoan zehar domeka eta jai egunetan zabalik izango da eta maitzetik aurrera larunbatetan ere bai. Egunean gutxienez lau orduz egon beharko da zabalik. Kantina berriaren obrak orain dela urtebete amaitu ziren eta joan zen maiatzaren 22an hitzarmena sinatu zen datozen bi urteetan Itxumendiko depositotik bertara ura eraman ahal izateko. 70 metro karratuko zurezko etxea da.

E S A N
D U T E

"Mikel Lasa duen esperientziagatik ekartzea nahi genuen baina beti izan dut buruan titularra Agustin Aranzabal izatea. Bera da etorkizunik onena duen jokalarietako bat"

JAVIER IRURETA

Realeko entrenatzailea
EGIN

"Mikel Zubimendi bere dimisioa Parlamentuan aurkeztera behartzen duen erabakiak argi uzten du Herri Batasunaren kontra behin eta berriz erabiltzen den praktika baztertzailer eta txantajista"

TASIO ERKIZIA

HBko parlamentaria
EGIN

"Olinpiadara Realeko jokalaria bezala noa eta urrezko domina ekartzeko asmoa daukat"

AGUSTIN ARANZABAL

Realeko jokalaria
EGIN



LIBERTARIAS

Eguakitza: 22:30.
Zapatua: 17:00, 19:30, 22:30.
Domeka: 19:00, 22:15.
Astelehena: 19:30
(Ikuslearen eguna).



▼▼ **Azoka Nagusiko jaiak** ospatuko dira Elgetan astebukaeran. Besteak beste, gaur 11etan Luhartz taldearekin dantzaldia eta 12etan rock kontzertua Gaztetxean. Larunbatean goizeko 7etan entzierroa, 14:30etan herri bazkaria eta gaueko 11etan play-backa. Igandean, goizeko 9etatik aurrera, ganadu, makineria eta burdindegi azoka.



Zinea

▼▼ **Vicente Aranda** zuzendari ospetsuak (*Amantes, La pasion turca*) Espainiako Guda Zibilean kokatu du bere azken filmea.artzelona hiriko txiki batean iraultzak ez zirela egingo du eta *Maria* izeneko monja batek (**Ariadna Gil**) eta *Charo* prostitutak (**Loles Leon**) nahiago izango dute *Pilar* (**Ana Belen**), *Floren* (**Victoria Abril**) edo *Aura* (**Blanca Apilanez**) bere lagun ondoan borrokatzea... **Miguel Boser**en partaidetzarekin.

▼▼ **Bergarako Orfeoiak** kontzertua eskeiniko du gaur gaueko 10etan San Pedron, Orfeoi Gaztearekin eta Haize Taldearekin batera. David Azurzaren zuzendaritzapean Orfeoiak, Belloportu eta Juan Jose Falconen lanak, Angel Barja eta Javier Bustoren egokitzapenak edo Gwyn Archenenak eskeiniko ditu.

Deiak

▼ **Erakusketa.** VI. Kirol argazkien lehiaketako lanik onenak izango dira ikusgai Kultur Etxean uztailearen 7ra arte.

▼ **Komiki lehiaketa.** Baleike Zumaia herri aldizkariak "II. Baleike Komiki Lehiaketa" deitu du. Lanak aurkezteko epea uztailearen 30ean bukatzen da. Argibideak 86 10 56 telefono zenbakian.

▼ **Argazki lehiaketa.** Arrasateko Udalak eta Asa taldeak "Gazteak eta intsumisioa VII. argazki lehiaketa" deitu dute. Lanak aurkezteko epea urriaren 11n amaituko da. Argibideak 77 00 65 telefonon.

▼ **Manu Muniategi**ren margo erakusketa Gasteizko CM2 erakusketa aretoan ostiralera arte.

Ogia

▼ **Igandea 30:** Konde.

FARMAZIAK

- ▼ **Ostirala 28:** Estella/Corcuera.
- ▼ **Larunbata 29:** Mozos/Trizar.
- ▼ **Igandea 30:** Mozos/Amezua.
- ▼ **Astelehena 1:** Camacho.
- ▼ **Asteartea 2:** Puy.
- ▼ **Asteazkena 3:** Guallar.
- ▼ **Osteguna 4:** Estella.



ETXEBERRIA

ERLOJUTEGIA-BITXITEGIA

Bidekurutzeta, 16 BERGARA ☎ 76 23 94 - 76 12 65

Era guzietako marrazki, argazki, letra eta abarrak kamisetan, sudadera edota nikietan inprimitzen ditugu, zuri beltzean zein koloretan. Fotokopiak koloretan. Futbol, saskibalo edota ziklismoko kamisetetan letrak, zenbakiak edo dibujoak jartzen ditugu. Publizitate artikulua: boligrafoak, metxeroak, garrak, agendak...



San Lorentzo, 7 behe. ☎ 76 50 39

Maixa eta Itziar

San Martzialeko erromeria alaituko dute

Maixa (soinua), Itziar (panderua), Garbiñe (bajua) eta Marie Helene (bateria) igandean San Martzialen izango dira, arratsaldeko erromeria alaitzeko. Maixak igandean dantzarako aukera izango dela esan digu.

- Bigarren diskoan (Uhinez uhin), ze nobedade dago, aurrekoarekin konparatuz?

- Disko honetan berrikuntza gehiago dagoela esango nuke. Erritmo berriak ditu eta horrez gain lan egiteko modua desberdina izan da oraingotan. Lehen musiko kontratatuekin lan egin genuen, eta orain, berriz, denon arteko lana izan da.

- Lanez gainezka ibiliko zarete...

- Bai, ia egunero emandiren bat izaten dugu, eta badirudi diskoak harrera ona izan duela.

- Nolako errepertorioa duzue?

- Denetik jotea gustatzen zaigu: fandangoak, mexikarrak... Abesti ezagunak dira guztiak eta edade guztietako jendeari zuzendutakoak; gaztetxo eta zaharrek dantza egiteko aukera izango dute.

- Kanpora irten zare-



Maixa, Itziar, Garbiñe eta Marie Helenek disko berria kaleratu dute.

tenean nolako harrera izan duzue?

- Orain bi urte Argentinan izan ginen eta oso oroitzapen politak dauzkagu. Badugu tratua hango jendearekin, eta gustatuko litzaiguke berriz hara joateko aukera izatea, oso esperientzia ederra izan baitzen. Bestalde, Segoviako Folk Astean eta Parisen izan gara. Segovian ere jendea oso ondo portatu zen gurekin. Kepa Junkera ezagutzen

dute eta arraro samarra egiten zitzairen neskez osatutako talde bat ikus-tea. Baina bai jendeak eta bai bertako komunikabideek oso harrera ona egin ziguten.

- Bergaran jo izan duzue, baina San Martzialen berririk bai?

- Komentatu digute jendea defasatzera joaten dela eta busti gabe ez dela inor jeisten... baina onena giroa zuzenean ezagutzea izango da.

"Edade guztietako jendeari zuzendutako abesti ezagunak eskeiniko ditugu igandean"

EGITARAUA

EGUAKITZA, 28

22:00: Bergarako Orfeoien kontzertua San Pedro elizan. Orfeoi Gazteak, Haize Boskoteak eta Bergarako Orfeoiak hartuko dute parte.

DOMEKA, 30

07:30: Santa Marinatik San Martzialera igoera Letania errezatuz.

08:30: Meza San Martzialen. Bukieran txokolata banatuko da.

09:15: Lizarrako dultzaineroekin, Xafre eta Zaharra trikitilariekin eta Udal Txistulari Bandarekin Alborada.

10:00: San Martzialera gurdi igoera.

11:00: Meza nagusia San Martzialen.

12:15: Xamatz dantza taldearen emanaldia.

12:30: Ohizko aurrekua.

13:00: Meabe eta Egileor bertsolarien saioa.

13:30: Abesti herrikoiak kantina aurrean.

16:30: Alai Taldearen emanaldia elizpean, taldearen 25. urteurrena dela eta.

17:30: Sokatira, txingak e.a. San Martzialgo zelaian.

19:30: Maixa eta Itziarrek alaitutako erromeria.

21:00: Jeitsierako txupinazoa eta txistulari, dultzainero eta trikitilariak alaitutako jeitsiera. Ondoren, erromeria.

Angiozar, 37

☎ 76 27 82



AZPEITXI

Aranerreka, 13 beheka ☎ 76 55 00

Jatetxea

Algodonerako kinka

Berrigara-ren azken aleetan Bergarako enpresen gorabeherak arreata bereziz hartzen direla konturatu gara. Jarrera pozgarria benetan xehetasun bat alde batera uzten badugu: langileen ikuspegitik ezer gutxi sakontzen dela.

Enpresariaren eta politikoen iritziak jaso eta lantzeko hor dugu prentsa "ofiziala", eta esan beharra dago ondo baino hobeto jorrazten duela bere saila. Beraz, langileok eskertuko genuke herri mailako prentsak beste hauek baino jatorrago jokatu balu gurekin.

Gure kasua Tavex da, eta honi helduko diogu. Algodoneraren 150. urteurrena dela eta, nahikoa propaganda egin dute zuzendariak, baina parafernalia guzti honen azpian hemen eta orain dugun kinka larria estali eta itzali nahi izan da.

Ponpa handiz Algodoneraren jaiotza ospatzen duten jaun hauek, lur emateko ere gertu daudela dirudi, soldatak aitzakitizat hartuaz, ezpaitute nahi duro bat arriskatu Bergarako enpresetan.

Makineria amortizatzeko aspalditik ezarri ziren 4. eta 5. txandak ez dute langileontzat onurarik ekarri, ez baita berri.

Urte gutxi dela Eusko jaurlearizatik jaso zituzten laguntzak ere Valentzian eta Marokon eman dute fruitu. Guretzako hondakinak geratu dira. Hala ere ekainaren 13an, San Antonio eguna, gure erakundeek ez dute izan lotsarik beren propagandaren euskarrik sendoena bihurtzeko.

Luzerako dugu borroka.

Sindikatuak hiru puntutan

bota du proposamena:
inbertsioen konpromezua
da jarritako lehena,
gazteentzako bereizkeriak
baztertzea bigarrena,
eta azkenik hurrengo urteetan
jornalen eros-ahalmena.

ALGODONERA ETA TAVESAKO
ELA ATAL SINDIKALA

Euskal Herria Askatu

Transizio "Demokratikoa" hasi zenetik 20 urte pasa badira ere, gaur da, gure herrian, Euskal Herria eta arrazoi politikoengatik gure herria eta Estatu espainola nahiz frantsesaren arteko gatazkaren erakusle nagusia diren 3.000 pertsonaren askatasuna aldarrikatzeko kontzentratu beharrean aurkitzen garen eguna. Nabaria da guk oso garbi daukagula zein den gure helburua, gatazkaren konponbiderantz abiatzea, baina zuek "bakezaleak" lortzen ari zareten gauza bakarra gatazka enkistatzea da.

Zein eratako bakezaleak zarete, ixilik baldin bazaudete espetxeetan giza eskubideak etengabe bortxatzen direnean?

Zein eratako bakezalea dispersioa salatzen ez duena?

Zein eratako bakezalea da leporaino armaturiko polizia inguratzen dena eta bere kontzentrazioetan paisanoz jantzitako poliziak onartzen dituen?

Zein eratako bakezalea da politiko

posibilista eta hipokritaz inguratzen dena (PNV eta EA) presoan hurbilketa dispersioa bezain ilegala dela jakin arren defenditzen jarraitzen dutenean?

Guri ez digute pakezaleak izateko aukerarik ematen, ez Euskal Herriarentzako pakea lortzen ez dugun bitartean, ez preso eta gainontzekook Euskal Herria aske eta subiranoan bizitzeko aukerarik ez daukagun bitartean.

BITTORE AIERBE

Hipokrita maitea

Bai, zuri, klasifikadoran "sexu mugarik ez" jartzen duen pegata bat duzun horri, eta gero bi neska edo bi mutil elkar muxukatzen ikustean nazka aurpegia jartzen duzun horri.

Bai, zuri, "tolerantzia" hitza eguneroko erabiltzen duzun horri, eta gero jendea eremu itxi batean bazterten duzun horri.


Bai, zuri, igandero mezetara joaten zaren horri, eta gero ezberdintasuna edo aniztasuna, gaixotasun hitzarekin baldintzatzen duzun horri.

Bai, zuri, zuri zuzentzen natzaizu, homosexualen bizitzaz infernu bat sortzen duzun horri, jendea ezkutatzera eta sufriaraztera behartuz.


Gora Gay Askapen Mugimendua!!

A. O. (NAN: 72.733.212)

Tiira biraka



ALEX UGALDE



Bertso afaria Antzuolan

Idolaz Antzuolako euskara elkarteak datorren ostiralerako, uztailak 5, bertso afaria iragarri du Olalde elkartearen gaueko 9 terdietan. Bertan Sebastian Lizaso eta Iñaki Murua bertsolariak izango dira eta afal ostean bertso paper lehiaketako sariak banatuko dira. Izen-ematea (helduek 1.200 pta. eta ikasleek 800) asteazkenera arte zabalik Larrea tabernan.

Elkarri

Bergarako Elkarrik dei egiten du bihar larunbata, hilak 29, *Euskal Herrian bidezko bake prozesu baterako* lemapean Bilbon 17:30etan egingo den manifestazioan parte hartzeko.

Udaletxean euskara erabiltzeko plana martxan

Udaletxeko langileen arteko harremanak euskaraz izatea helburu

Asteazkenean "Administrazioan euskara bultzatu erabiliz" izenburuko plan pilotoa aurkeztu zen Udaletxean. Bertan, Josune Ariztondo Hizkuntza Politikarako sailburuordea, Victoriano Gallastegi eta Mikel Larrea Bergara eta Antzuolako alkateak, Jokin Azkue HABEko zuzendaria, Juan Isasi HAEE-IVAPEko euskararako zuzendariordea, Estepan Plazaola Bergarako euskara dinamizatzailea eta Iñaki Ugarteburu Bergarako Udaleko langileen ordezkaria izan ziren.



"Administrazioan euskara bultzatu erabiliz" planaren aurkezpena.

Bergara eta Antzuola aintzindari

Bergaran eta Antzuolan martxan dagoen plan honek udal barruan, maila politikoan zein langile mailan, euskararen erabilera areagotzea du helburu. Era berean, Udalez kanpoko harremanak, bai herritarrekikoak eta bai beste erakunde batzuekikoak, ere euskaldundu nahi dira. Josune Ariztondok adierazi zuenez, "arrazoi batzuegatik Bergara eta Antzuola auke-

ratu genituen plan piloto hau martxan jartzeko eta gure asmoa hemendik gutxira antzeko esperientziak beste udal batzuetara eramatea da".

Victoriano Gallastegi alkateak, berriz, Bergarako Udalak euskararen alde lan egiteko duen jarraera azpimarratu zuen.

Mikel Larrea Antzuolako alkateak adierazi zuenez, planak indarrean daraman urtebeteko balantzea positiboa izan da "erabilera gehitu egin baita".

Bestalde, Estepan Plazaola Udaleko euskara

teknikariak esan zuenez, "Bergarak eta Antzuolako euskararen normalkuntzarako pauso dexente emanak dituzte lehenetik ere, eta horrek hemendik aurrerako pausoak zailago egiten ditu. Eta zailtasun horiek gainditzeko, planak abalik eta indarrik gehien batzeko ahalegina egin da. Alde batetik oso inportantea da Jaurilaritzaren laguntza eta baita udaleko langileen partehartzea ere. Eta bestetik, herritarren partehartzea ere indartu nahi dugu". Planak hiru urte iraungo du.

HILDAKOAK

Guillermo Zenitagoia Gallastegi
Ekainak 23, 86 urte
Jose Maria Telleria
Isas-Isasmendi
Ekainak 24, 63 urte

JAIOTAKOAK

Alatz Lazpita Arizmendi
Ekainak 17
Mikel Etxezarreta Marti
Ekainak 19
Michelle Rajado Conde
Ekainak 21
Mikel Rodriguez Fernandez
Ekainak 23

AGENTZIA:
J. ELKORO
Ibargarai, 2 behea
Tfnoa: 76 57 85
BERGARA

ZURICH
VITA
UNIBER
CAUDAL
HISPANIA
ZURICH TALDEA ASEGURUAK



KONDE
PANADEROKUA
Burdiñate, 1 ☎ 76 02 57



Udako ordutegia Udal Liburutegian

Uztailean eta abuztuan Kultur Etxeko Udal Liburutegia goizez bakarrik izango da zabalik, 8etatik ordubatera.

Justo Garate beka

Bergarako Udalak deitutako Justo Garate beka eskuratzeko eskakizunak irailaren 1etik 30era bitartean aurkeztu beharko dira Bergarako Udaleko Kultur Zerbitzuan. Ikerketa lana euskaraz egin beharko da eta aurtengo deialdia Historiari zuzenduta dago. Bekaren iraupena 11 hilabetekoa izango da, 1996ko azaroaren 1etik kontatzen hasita eta bekaren diruzenbatekoa 935.000 pezetakoa izango da. Interesatuak Kultur Etxera edo 77 91 60 telefonora jo dezakete informazio eske.

1979koei tetanoaren kontrako txertoa

1979. urtean jaiotako bergararrei tetanoaren aurkako txertoa jarriko zaie datorren astelehenetik aurrera. Aurrez txanda eskatu beharko da Bergarako Anbulategian, 76 24 40 telefono zenbakian.

Gazte bat atxilotuta

Larunbatean Ertzantzak J.M.A.D. 22 urteko gaztea atxilotu zuen Bergaran. Badirudi gazteak aurreko ostegunean herriko enpresa batean 14.000 pezeta eta hainbat agiri lapurtu zituela. Lapurtutako kredito txartel batekin hainbat kutzazain automatikotan 110.000 pezeta atera eta 34.000 pezetako erosketak egitea lortu zuen Ertzantzak atxilotu zuen arte.



Pil-pilean dauden hainbat gai eztabaidatu ziren asteleheneko Plenoan.

Eztabaida Udal Gobernuaren eta oposizioaren artean Plenoan

EUDIMAKo ordezkari bat alkatearekin bildu daiteke

Asteleheneko Plenoan, erregu eta galderetan, HBko zinegotziek hainbat galdera planteatu zizkioten Udal Gobernuari. Agurne Barruso zinegotziak Egin egunkariari egiten zaion boikota eta AEK "Ahoz aho, belaunez belaun" kanpainatik kanpo geratzearren arrazoia galdetu zituen. Bere hitzetan, "intsumisoen mozioa atzera bota zenuten eta ez dakit zergatik ez duzuen berdina egiten Eginen kontrako boikotarekin, legez kontrako erabakia baita." Alkateak akordioa mantentzen dela erantzun zion. "Gai horretan beste interpretazio batzuk daude eta gaia aztertzeke dago oraindik".

Barrusok AEKk "Ahoz aho, belaunez belaun" kanpainan emango

diren klaseetan parte ez hartzea ere salatu zuen. Koldo Pereira euskara zinegotziak zera erantzun zion: "aurkeztutako jendea aztertu ondoren ikusiko da Udal Euskaltegia hortarako prest dagoen. Eta berak bakarrik ezin badu, akordio batera iritsiko gara AEKrekin".

Aitor Aranzabalek Euskal Udal Intsumituen Mankomunitatearen bileraren berri eman zuen. "Bergarako kasua azaldu genienean ordezkari batzuk harrিতuta geratu ziren. Baldintza horietan (Plenoan Udala intsumiso egiteko erabakia Gobernu Batzordeak atzera botatzea) dagoen berri bakarra Bergara da eta EUDIMAKo ordezkari bat alkatearekin berba egitera etortzekotan geratu zen".

ZAPELAITZ

Taberna

Eguneko menuak
astelehenetik ostiralera

San Lorenzo, 25 BERGARA

REMENTERIA

Altzariak

Egongelak / Logelak
Aukera guztiak / Enkarguan

Arte kale, 6 Tfnoa: 76 13 29

Siaska

Dena zure
haurrarentzako

San Pedro, 10 ☎ 76 10 39

Selektibitatean emaitza onak lortu dituzte herriko ikasleek

Aranzadi, Ipintza eta Miguel Altunako ikasleek egin dute

Bergarako irakaskuntza ertainko ikasleek emaitza bikainak lortu dituzte ekaineko selektibitate azterketan. Selektibitatea gainditzea behar beharrezkoa izaten da unibertsitate karrera egiteko.


Bergarako ikastetxeek emandako datuen arabera, aurkeztutako ikasle gehienek selektibitate frogan gainditzea lortu dute. Horrela, joan den ekainaren 13 eta 14an Arrasaten egindako probara, Ipintza Institututik 56 ikasle aurkeztu ziren, horietatik 49 euskarazko taldekoak eta beste 7ak gaztelarazko taldekoak. Euskarazkoen artean lau ikasleek ez zuten azterketa gainditu eta gaztelarazko taldean, berriz, suspentututako ikasle bakarra izan zen. Guztira, 70 ikasle izan dira azterketa egiterik izan ez dutenak, 50 euskarazko taldekoak eta 20 gaztelarazkoak.

Miguel Altuna Institutuan, berriz, 37 ikasle egin dute selektibitatea ekainean eta 2 ikasle izan ezik, guztiek aprobata egin dute. Beste 30 bat ikasle ezin izan dute azterketarik egin, irailerako asignatura-ren bat lagatzeagatik.

Azkenik, Aranzadi Ikastolatik, 14 ikasle aurkeztu ziren eta guztiek

gainditu zuten. Beste 3 ikasle iraillean UBI eta selektibitatea gainditu beharko dituzte.

Selektibitatea gainditzerik izan ez duten ikasleek eta iraillean UBI gainditzeko dutenak beste aukera bat izango dute irailaren 12 eta 13an Arrasateko Eskola Politeknikoan egingo den azterketan.



Selektibitatea gainditu dute azterketa egin duten herriko ikasle gehienek. ARTXIBOA.



■ Gartzela zaharra gazteentzat

Jarduneko Gazte Taldeak, uztailearen 1etik 24ra bitartean 12 urtetik gorako gazteentzat Gartzela Zaharra zabalduko du, astebarruan 7etatik 9etara. Sarrera doan izango da eta Jardunek dei egiten die gazteei bertara hurbiltzeko (baldintza bakarra euskaraz hitzegitea izango da).

Adin horretako gazteentzat iluntzetan iharduera gehiegirik ez dagoenez, Jardunek ping-ponga, futbolarik, mahai-jokoak eta horrelakoak jarriko ditu, gazteen euskal txoko bat sortzeko ideiarekin.

■ Jubilatuentzat egonaldiak

Diputazioak hiru eguneko egonaldiak antolatu ditu jubilatuentzat. Hurrengo irteerak uztailearen 8an eta irailaren 2an egingo dira. Argibideak 76 21 40 telefonoan jaso daitezke.

Carmen Garate


Plastikoak orokorrean. Oinetakoak.
Opari gaiak. Jostailuak. Zumea...

Bidekurutzeta ☎ 76 13 23



DEBA
GARAIA
INMUEBLE ETA FINANTZA
AGENTZIA

Arrasate / Bergara / Elgoibar
T. Aranzadi, 2 behea ☎ 76 21 80-76 06 37



Irizar, 2
☎ 76 14 95

JAUJA KIROLAK

GISASOLA BURDINAKI DENDA

"Erratzu"

San Pedro, 8

Tfnoa: 76 27 70

BERGARA

Oporren atarian

Bidai-agentzia nola aukeratu

- Zer izan behar da kontutan bidai-agentzia aukeratzekoan?

- Bidaia erosi aurretik gauza batzuk argi izan behar dira; zein bidaia mota nahi dugun eta zenbat denbora eta zenbat diru daukagun bidaia egiteko. Eta bidaia aukeratzeko. Eta bidaia aukeratzeko, erosi aurretik, agentziari kontratua eskatu eta ondo irakurriko dugu, kexa edo erreklamazioen bat baldin badaukagu norengana jo jakiteko. Eta oso oferta erakargarri baten aurrean batez ere informaziorik ahalik eta zehatzena eskatu behar da. Kategoriaz berdineko hotelen artean, adibidez, alde handia izaten da.


- Kontsumitzaileak lehen baino aukera gehiago ditu...

- Horrela da, bai. Joan den urritik indarrean dago *Ley de viajes combinados* delakoa, eta hori kontsumitzailearen onerako izan da. Orain, egindako erreserba 3. pertsona bati pasatzeko aukera dago, agentziek ematen duten

informazioa zehatzagoa da, eta bidaiaren baldintzak aldatzen badira diru berreskuratzeko aukera daukagu.

- Arazoak bidaian bertan izaten badira?

- Bidaia ordaintzeko orduan bidaiaren kontratua eskatu behar dugu, guretzako garantia bat izango da eta. Bidaian arazoak izaten badira ho-



IÑAKI ETXEBERRIA
(Kontsumo teknikaria)

be da bertan konpontzea eta kontrako kasuan bidai-agentziara joko dugu, askotan agentziek maioritei botatzen dietelako gertatutakoaren errua. Bidai-agentziek emango digute konponbidea.

- Nolakoak dira hementxo agentziak?

- Guztiak nahiko onak

dira. Agentziek bezeroari nahi duen guztia eta gehiago eskeini behar diote eta gero eta bidaia hobek eskeintzen dituzte. Normalean ez da arazorik izaten, batez ere gauzak denboraz eta ondo pentsatuta egoten badira.

- Zeintzuk izaten dira agentzien arteko diferentziak?

- Askotan prezioak eta osagarriak: opariak, bisita alternatiboak... Azken batean bidaiaren prezioa eta zein kalitate eskeintzen duen neurtu behar da. Eta deskontuekin kontuz ibili behar gara: onena deskontuak pezetetan neurtez da, bidaien arteko benetako diferentzia zein den jakiteko. Baina normalean bidaia onak prezio onean egoten dira.

- Kontsumitzaileek zer ematen diote lehentasuna?

- Gaur egungo egoerarekin prezioak garrantzi handia dauka. Kalitatea begiratzen da, baina beti lehenik zenbat diru gastatuko dugun pentsatuta.

- Zeintzuk dira bidaia erakargarrienak?

- Barruko turismoari dagokionez, Mediterraneo eta irlak, jendea eguzkitara joatea gustatzen zaio eta. Eta kanpora begira, Karibea. Iaz horiek izan ziren destinu izarrak, eta aurten ere berdintsuak izango dira seguruen.

"Azken batean, kontsumitzaileak, bidaiaren prezioa eta eskeintzen duen kalitatea neurtu behar du"



Oporretan jendea eguzkitara joatea gustatzen zaio.

IGARO

- ✓ Kosmetika eta oparigaiak
 - ✓ Eder gela
 - ✓ Bio Solariunma
- Barrenkale, 35 Tfnoa: 76 17 27

Garnish

Bitxitegia

San Pedro, 12 ☎ 76 03 57

Kabutzia

ARRAINDEGIA

Fraiskozuri, 6 ☎ 76 56 62

Iñazio Arregi

Aranzadi Ikastolako zuzendaria

Aranzadi Ikastolak 25 urte bete dituela eta, Iñazio Arregi zuzendariarekin berba egin dugu. 44 urte ditu eta 20 urte eman ditu Aranzadi Ikastolan, hasieran irakasle aritu zen eta azken 15 urteetan zuzendari lanak egin ditu.

- Aranzadi Ikastolak 25 urte bete ditu. Ze balorazio egiten duzu?

- Herrian sustraitu den eredu bat eskaintzen dugu. Ikastola jaio aurretik, ikastetxe publikoa eta pribatua genituen eta ikastolaren sorrerarekin hirugarren erreferentzia bat sortzen da, gizartearen parte hartzearena. Bestalde, 25 urte hauek esperientzia eman digu pixkanaka hezkuntza eskaintza zabalagoa eta hobea emateko.

- 25. urteurrena ospatzeko jaialdia antolatu zenuten ostiralean. Zer moduz?

- Oso ondo. Udal Pilotalekua leporaino betetzen eta bai ikasleek eta


baita irakasle batzuk ere jaialdia aurrera ateratzeko egin zuten lana azpimarratu behar dela uste dut. Aurretik iragarrita zegoen bezala irten zen dena. Bestalde, gurasoen parte hartzea ere oso garrantzitsua izan zen. Egun boro-bila izan zen.

- Datorren ikasturterako ere hainbat ekitaldi antolatuko dituzue...

- Bai, kultur aste bat antolatuko da eta horrez gain, Aranzadiren 25 urte-en erreposoa egingo duen liburu oroigarri bat argitaratuko da.

- Kontaiguzu hasierako urte haiek.

- Orduan euskarazko klaseak ematen zituzten bi akademia zeuden Bergaran: San Martin eta Luis Eleizalde. Hortaz, sorrerako aktetan jasotzen denaren arabera, biekin ikastola bakarra egitea erabaki zen Ikastolen Federazioaren aholkuei jarraituz. 1971.eko ekainaren 23an sortu zen ofizialki Aranzadi Ikastola.



"328 ikaslerekin eta milioi t'erdiko aurrekontuarekin hasi ginen".

Dominikoez 5 gela utzi zizkioten ikastolari Seminarioan eta horrela hasi zen, 1971-72 ikasturtean 328 ikaslerekin. Aurrekontua 1.500.000 pezetakoa zen. Haurreskolatik hasi eta OHoko 6. mailara arteko ikasketak eskaintzen ziren.

- 25 urte hauetan garai ezberdinak ezagutu zituen Aranzadik.

- Bai, nik bi etapa nagusi bereiztuko nituzke. Sortu zenetik orain dela bost bat urtera arte lehenengo eta 1990.etik hona bestea. Lehen garai horretan, Bergarako herria euskalduntzera bideratu ziren esfortzurik gehienak, beti ere pedagogia mailan izan zitezkeen berrikuntzak jasoz eta ahal den neurrian praktikan jarritz. Azken urteetan, ordea, batxilergoak

ezarri eta kalitatearen alde apostu eginez, beste prozesu batetan murgilduta ibili gara.

- Urte polemikoenak izan dira beharbada...

- Bai, 1993an erabaki behar izan genuen sare publikoan integratu ala lehen bezala ikastola kontzertatu bezala jarraitu, eta bigarren hau erabaki zen, pentsatuaz gaur egun daukagun estruktura, hezkuntza eskaintza eta asmoak ezingo genituzkeela sare publikoan sakondu.

- Aranzadi ikastolak etorkizunera begira duen erronka nagusia?

- Ertainetako irakaskuntza ondo finkatzea eta legedia berriari (LOGSE) behar bezala erantzutea da helburua. Bide onetik goaz, emaitza onak lortzen ari baikara.

"San Martin eta Luis Eleizalde akademiek bat egin eta Aranzadi Ikastola sortu zen"

Pepelu

Ilepaindegia

Zurradero, 2 ☎ 76 43 07
BERGARA



BENITO

• Zoruak leundu eta barnizatzea

• Parketa jartzea

PINKIAK

☎ 76 33 80 BERGARA

San Martzial

Domekan egun haundia bergararrantzat

Bergararrantzat jairik herrikoiena eta sagratuena izango da, duda barik, San Martzial eguna. Ekainaren 30ean da San Martzial: asteburuzuri an tokatuz gero domekara atzeratzen da, aurtan 30a domeka izanik egunean bertan ospatuko da. Goizeko letanirekin hasi eta eten bereko festak jarraituko dio.

Bergarren egun handia iritsi da, lagunak eta familia-koak elkartuta egingo den jairik herrikoiena. Zahar eta gazte, ikasle eta langile... denak dira urtean egun batez San Martzial.

Aurtan gainera, santuaren egunean, ekainaren 30ean ospatuko da. Aspaldikoa da San Martzialgo erromeria. Juan Martin Elexpuruk 89an egin zen San Martzial ikuskizuna zela eta hauxe idatzi zuen, "litekeena da erromeriak oso sustar zabarrak eta sakonak izatea. Kristautasuna gure lurretan nagusitu zenean (X-XIV. mendeen artean gutxi gorabehera) gauza jakina da lehen kulto paga-



Lefanian 300-400 bat lagun elkartzen dira. Aurtan San Martzial domekan denez jende gehiago espero da.

noak egiten ziren lekue-tan jaso zirela ermitak, eta pentsatzekoa da paraje hau kulto (eta parranda) lekua izango zela aurretik ere".

Eguna hasteko letania

Santa Marinako kanpai hotsak dilin-dalan batean hasi, fededunen batek

gurutzea eskutan hartu eta abadearen atzetik, letanian hasten da jendea goiztiar tropelka San Martzialerantz abiatzen; 300-400 lagunek hartzen dute parte 7:30etako ekitaldian. Aurtan domekan denez, gehiago elkartuko direla pentsa daiteke.

Felisa Iturrino Zaldu-mendi baserrikoari ge-

hien gustatzen zaiona letania eta meza nagusia izaten da. "Lehen letania San Martzial egunean bertan eta ospakizuna egiten zen egunean egiten zen, orain, berriz. San Martzial egunean bakarrik. Egun berezia da, baina gutxien auzokoentzat, lana izaten da eta. Sasoi batean gonbi-

A
R
R
A
N
O



Taberna

Kruz Gallastegi BERGARA

Sugoi

**ERLOJUAK, ARTIKULO
ELEKTRONIKOAK,
KALKULADORAK...**

Irizar pasealekua, 2 behea
☎ 76 59 54 BERGARA

ONENA

TINTATEGIA

Barrenkale, 29 BERGARA

dautza bandiak izaten genituen: senitartekoak, ezagunak, lagunak... orain, berriz, gonbidatuak, seme-alabak etortzen dira".

Txara baserriko Romana Sagastigutxirentzat ere onena letania izaten da: "Urteetan, beti, joan izan naiz, baina orain 86 urte ditut eta ez naiz joango. Letaniaren ostean meza entzun eta txokolatea jaten genuen. Gero han izaten zen umia, amia eta abarrarekin etxera itzuli behar izaten ginen".

Ez da asko aldatu

Felisaren ustez beti izan da egun handia. "Ez dut uste asko aldatu denik. Lehen kanpokoak, Antzuolakoak-eta, asko etortzen ziren, orain, berriz, herritarren jaia da. Jendeak pozik pasatzen du eguna, alaitasuna izaten da nagusi".

Miguel de Unamunok 1888an idatzitako artikulua baten arabera ere ondo horixe atera daiteke. Idazleak dioenez, "Vergara es un pueblo donde corre mansísimo el curso de la vida pública. Pero un día se turba esa tranquilidad y revienta la caldera, corre un viento de expansión y gozo; este día es el 30 de junio".

Unamunok ardoa eramanez udalbatzaren aurretik joaten den gurdia ere aipatzen du. "Lo dig-

no de atención es el burdiondo, institucion sagrada. (...) va gordo y boyante y vuelve flaco y exhausto por la sangria, heroe ignorado que vierte su sangre por nuestra alegría, y pide por todo premio que le vuelvan a llenar". Aurten ardoa Vinos Manso eta Bodegas y Suministros Arian-ek eman dute doan, herritarrek nahi adina edan dezaten.

San Martzialetan zedozer falta izaten ez bada horixe da: ardoa. Benja Lazkano eta koadrilakoak hamabost bat egun lehenago Errioxako Navaridas herrira joaten dira, eta San Martzialetarako ardo beltza ekartzen dute. Lehen garrafoian ekartzen bazuten ere, orain,


erosoagoa delakoan, botiletan eskaintzen diete euren mahai ingurura gerturatzen diren lagunei. Bost bat koadrila mahairik mahai ibiltzen dira eta txikiteoa egiten dute.

Aureskuan nork aterako zain

Bazkalaurrea aureskua egiteko ordua izaten da. San Martzialetan has ten ziren bikote asko elkarrekin ibiltzen, eta auresku garaia izaten zen bikotea aukeratzeko une horietako bat.

Bizente Monzon eta Lardizabalen berbek ere hala diote 1900eko Euskalerrria aldizkarian: "Ilarako bi gazte aurreratzen dira eta gizalege osoz jende dotore talde

batengana urreratzen dira eta baietako dama gazte bat ateratzen saiatuko dira. Azkenean aingeruak bezain zuri eta ilehori den gazte xarmant bat, lotsa aurpegitik ezin kendu duela, plazara irten da eta bi laguntzaileak albo banean direla dantzarien aurrean jarriko da. Orduan, jaun maitagarri haren bankak bizkortu egiten dira, bere hogeitertan ez zuen hobeto dantzatuko (...) Atzeskua baietako gazte batek dantzatuko du (...) gero zortzikoa dator eta azkenik desafioa (...) Gero bikoteak besoz beso, pontxegileen mahaietara doaz eta baso bana ur, azukre bolauaz gozatua edanez freskatuko dira".



"Ardoa eta alaitasuna dira lagunak eta senitartekoak elkartzen diren egun honetako ezaugarri".

GURIDI altzariak

Era guztietako altzariak

Artekale, 8 Tfnoa: 76 31 02

EGUREN

GESTORIA

Maria Pilar Eguren Díez

Kolegiatutako administrazio gestorea

Simon Arrieta Plaza, 3 behea

☎ 76 21 65 / 76 24 45

Gallastegi

Jostundegia

Mahozko lanerako jantziak

San Pedro ☎ 76 10 85

On egin dagizuela!

Iji eta aja, drinki ta dranka, jendea bazkaltzeko prestatzen ari da. Gazteenek bokadilloa jaten dute, urtetxo batzuk gehiago dituztenek jatetxeetan prestatuta eramaten dute, etxetik eramaten dutenak ere badira, eta beste askok San Martzialen bertan prestatzen dute. Maria Luisa Agirreolearen mahaikoek, besteak beste, Maria Luisak gertatutako karakol goxoak jaten dituzte. *"Ez dute sekreturik: ozpina, gatza eta saltsa izaten dute. Saltsa haragi egosiarekin, gixauarekin eta urdiazpikoarekin egiten dut, gainera ez ditut ondo prestatuko, karakolak txorixo barik egitekoak direla esan didate eta. Dena den, gizonak badu meriturik, denak, 400 bat karakol, zotza hartu eta banan-banan garbitzen dituelako. Badakizu, karakola ondo garbitu ezean..."*

Jatetxeetan bazkaria enkargatzen dutenak asko dira; guk hiru jatetxeetan galdetu dugu menua prestatzeko asmoa ote zuten, eta baietz erantzuteaz gain, zenbat bazkari prestatu behar zuten ere adierazi digute: guztira, hirurak kontatuta, 500en bat. *"Paella, tortilla eta oilaskoa dira gehienek eskatzen dutena"*.

Udaleko ordezkariak arkupetan bilduko dira,

Bikotea topatzeko eguna izan da betidanik San Martzial eguna. Bergarako bikote asko hasi ziren San Martzialgo erromerian.

inguruan, besteak beste, bertsolariak, dultzaineroak eta Mizpirualdekoak dituztela.

Gutxienez 123 mahai

Bazkaltzeko mahai ugari jartzen da zelaian. Urteetan bertan jarrita daudenek ematen dute zeresana, izan ere, zenbaiten ustez urte guztian paisaia zatartu besterik ez dute egiten; jarrita dituztenek, oster, urte guztirako zerbitzua eskaintzen

ditela diote. Udalak 1.500 pezetaren truke alokatzen ditu egun horretarako mahaiak. Aurretan alokatzeko epea ireki zen egunean bertan gastatu ziren mahaiak. Gai honetaz Rufina Olasagasti Kultura gestoreak hauxe azaldu digu: *"aulkidun mahaiak dira, eta Oñatitik ekartzen dira. Mahaiak banaka jarrita egongo ez balira mahai gehiago jartzeko aukera egongo litzateke, baina mahaiak banaka jartzen*

direnez astorik edo kaballeterik ez da izaten. Dauden asto guztiak, 123, ekartzen dira". Pasaiatik eta Donostiatik ere ekarri izan dira mahaiak. *"Pegableak ziren, jarlekuak aparte zituzten eta San Martzialerako ez ziren oso egokiak, zelaia gorabeherak dituelako. Batzuk desagertu egin ziren, hondatu ere bai, eta ordaindu egin behar izan ziren".*

Mahaien auzi honetaz Felipe Altuna zinegotziak



Sustar zaharrak eta sakonak ditu erromeriak. Garai bateko txokolatada.

BEHERAPENAK behar bezala aprobetxatu nahi badituzu, zatoz ZUBIKUAra astelehenetik, uztailak 1, aurrera. ZAIN GAITUZU.

%20 • %30 • %40

Barrenkale, 24
Zubikua
 ☎ 76 10 16

ere egin digu berba. "Oraindik ezer ez dago zehaztuta, baina badirudi datorren urteko San Martzial egunerako egurrezko mahai finko batzuk jarriko direla; ez dakigu zenbat, asko jartzera urtean zehar ez dira erabiliko eta hondatu egingo dira. Eta San Martzial egunerako behar direnak, orain bezala, kanpotik ekarriko dira. Horretaz gain, pagorak sartu dira zuhaitz bako lekuetan, konponketak egiteko asmoa ere badago... Baina lan asko diru kontuen gorabehera daude".

Alai taldeak 25 urte

Bapo jan ostean alaitasuna nagusi izaten den egunean ezin falta Alai taldea. Gainera eurei beharriak berotu beharrean gaude, kantuan 25. urteurrena betetzen dute eta. Meza ostean eta taberna aurreko saioez gain, bazkal ostean ere kantatuko dute. Hasteko 12 bat kantatu dituzte prestatuta: Oles ezkon berriak, eperrak, festara... baina akordatzeko zaizkien guztiak abestuko ei dituzte. XXV. urteurrena izan arren, ez daude urduri, hainbeste saio izan duen taldea ohituta baitago jendaurrean bere trebezia erakusten. Eztarriak hoztu baino lehen gorputzak astindu beharra dago; horretarako txingak aldean hartu,

Nobixua topatzeko... San Pedro San Martzialean

Orain galdu samar dagoen arren, sasoi batean egun guztian zehar jendearen ahotan kantu hau izaten zen: "Bergarako kalietan neska zaharrak bentanetan nobixua topatzeko San Pedro San Martzialean". Berbek zein zahar eta gazteek diotenez, San Martzialak betidanik izan dira laguna topatzeko eguna. 89ko San Martzial ikuskizuna zela eta kaleratu zen programan ere hala jaso zion Juan Martin Elexpuruk bergarar bati: "Nobixia topatzeko eguna izaten zuan. Egun hortan espabillau ezian,

sokatiran tira edo mira, denek hartuko dute parte lagunarteko norgehiagokan, giro ezin hobean.

Buelta elkarri helduta

Txistulari, dultzainero eta trikitalarien musika doinuekin jeitsiera iragarriko da. Aintzinako sinismenari kaso eginik, San Martzialdik gertu dagoen iturriko urak azaleko gaitzak osatzen dituela eta, pañueloa uretan busti, azala igurtzi eta urtebeterako erremedioa izango dugu. Ondokoari heldu, saltoka hasi eta kalerako bidea hartu beharko da. Erromeria. Eta

gero gerokoak. Honela dio Unamunok: "*Muchos van a digerir con el sueño el buen humor que anda confuso en la cabeza, el pueblo vuelve a su curso tranquilo y quedan los recuerdos del San Marcial pasado y las esperanzas del San Marcial venidero*".

Bakarrik sekula ez

Jai bihamunean San Martzial ez da bakarrik geratuko, parajea garbitzeaz arduratuko diren langileak izango ditu lagun. Alejandro Najerak esan digunez bertan egoten diren 2 kontenedore-

txandapasa hurrengo urterarte. Dantza denporan saiatu bihar izaten zuan gero 'del brazete' bajadan etortzeko. Gero neska kafia hartzera gonbidau, espoloian dantza batzuk ein... da eskutik heldu eta neskaia atairaiño laguntzera. Laztanik eta emutia pentsau bez... baiña eskuan halako gusto bat geratzen zuan, halako kilikili bat, egunetan be joaten etzana". Mari Karmen Leturiak eta Jabier Agirreoleak, beste askok bezala hantxe izan zuten lehen zita. "Gainera, lehen neska eta mutilak elkarri helduta ez ziren ibiltzen; San Martzialeako aurrekuan mutilek dantzara ateratzeko zain egoten ginen, eta jeitsieran ere neska-mutilak elkarri helduta joaten ginen, oso egun berezia izan da beti. Zenbat bikote hasi ote da San Martzialean!"

ez gain, egunerako beste 3 jartzer dira. "*Zikinkeria asko jasotzen da: janaria, papelak, botilak, plastikoak... denetarik. Iaz bizpahiru egunetan 6 bat orduz lau langile ibili ziren garbiketan. Ikaragarritzko zabor pila egoten da, baina kontenedore gehiago ezin da jarri lekuri ez dagoelako*".

Astean zehar garbiketa egin, San Martzial atzera itxuratu eta domekan berri Musika Eskolako jaiari esker bisita izango du Santuak, San Martzial Txiki baita. Udan, eguraldia lagun izaten denean ere izango du lagunik.

Oraindik ez dago ezer zehaztuta, baina badirudi datorren urteko San Martzialearako zenbait mahai finko jarriko direla.

ileapaindegia

eder gela

disdira

Masterreka, 7 • Tfnoa: 76 00 55

IGARZA

**MERZERIA
LENZERIA**


Irala, 5 ☎ 76 24 88 BERGARA

SUBIJAI

Gazteentzako moda

Irizar, 1 ☎ 76 42 41

Nola ikusten duzu homosexualak, gay eta lesbianek, umeak adoptatzea?



Aitor Ilarduia

Ondo ikusten dut. Bikote bezala emakume eta gizonen pareko eskubideak dituzte, eta nik uste dut aitaren eta amaren lana berdinegin dezaketela.



Juan Ramon Perez

Nire ustez umea beste edozein gizon edo emakumek bezala zaindu dezakete, eta ondo ikusten dut. Ez dut inolako arazorik ikusten.



Ana Azkargorta

Bai, nik ondo ikusten dut. Medioak baldin badituzte ez dut ezezko arrazoirik ikusten homosexualak umeak adoptatzeko.




Ana Azkarate

Ez dut ez ondo eta ez gaizki ikusten. Eurek pentsatuko dute. Baina lan handia da...



Marina Gracinda

Horretarako erresponsablea izan behar da, eta beste edozeinen pareko eskubideak dituzte. Hori bai, erantzunkizunari lehentasuna ematen diot.



Pegerto Blanco

Ez dut ondo ikusten. Normalean ama da haurra gehien zaintzen duena, eta ohizko bikotea normalagoa ikusten dut.

MINER ardak

San Juan auzoa ☎ 76 01 34

Etxera eramaten dugu

BERGARARAKO BANATZAILEA:



RAM



VINEXPO SARIAK 96 (BORDELE)

Urrezko domina. Ardo gaztea.

Termino de Ugarte 95

Zilarrezko domina. Kriantza.

Dominio de Ugarte 93

Brontzezko domina. Erreserba.

Dominio de Ugarte 89

Ondo pasa San Martzialetan!!



San Martzial

Puristenek, seguruenez, ez dituzte ontzat hartuko be-launaldi berrien portaera asko, denboraren poderioz ohitura bihurtu direnak, baina egia da dena aldatzen dela, onerako edo txarrerako, baina aldatu egiten da.

San Martzialeko erromeria, Bergaran ospatzen diren jaietatik popularrena eta politena, eta bergarar guztiek parte hartu beharreko bakarra izango da seguruenez.

Eta ohitura asko aldatu baldin badira ere, guztiak ez edade guztietako jendea biltzen da jai honetan eta, gainera, inportanteena, denok denok hartu-emanetan jartzeko aukera bakarrenetakoa da. Ea luzaroan jarraitzen duen horrela!

Orkesta hobexeara edo eskaxagoa izateak, jokuek emozio gehitxoago edo gutxiago izateak, eguraldi ona edo lainotua egiteak ez du gorabehera haundirik; inportanteena San Martzialen mundu guztia pozik egoten dela da.

Euria bada, ekaitza bada, edota denok nahi genukeen bezala uda-giroa egiten badu, igandean San Martzialen elkartuko gara.

Marta MORAL



Udala euskararen bidean

Sei bat urte izango dira Bergarako Udalean langileen euskalduntze prozesu martxan jarri zenetik; orduan hizkuntz eskakizun batzuk markatu ziren bakoitzaren maila eta lortu beharreko helburuaren arabera epe batzuk ezarri. Emaitzak ikusirik esan behar da plangintza arrakastatsua izan zela langileen %86,7ak helburua lortu baitzuen.

1994. urteko amaieran inkesta bat zabaldu zen langileen artean euskalduntze plangintza berri bati buruz iritzia eskatuz, %58,7ak beharrezkoa zela erantzun zuen eta %32ak aldeko iritzia eman zuen baina aipatuz kontutan eduki behar zela ekimen hauek bakoitzaren lanean izaten duten eragina. Dagoeneko 6 hilabete daramagu AEBE plangintzan murgildurik, zertarako? euskaraz bizi ahal izateko.

Orain arte egindakoa garrantzitsua da baina gelditzen dena ez da txantxetako; herritarrekin harremanak euskara hutsean izateko aukera ematea, erakunde eta enprekin ere harremanak euskaraz izatea, sortzen ditugun testu eta inprimakiak euskara ulerterrezean kaleratzea, komisio edo batzorde guztiak euskaraz egitea, e.a.

Hau dena aurrera ateratzeko den-denok egin beharko ditugu ahaleginak, baina ahaztu barik, gure aportazio nagusia, herritarrak Udaletxera datozenean euskaraz zerbitzea edo guk geuk langileen artean dihardugunean euskaraz bizitzea dela.

Iñaki UGARTEBURU

TOKI-ONA

Bodegoia-taberna

Eguneroko janariak / Txitxizotzak
Kazolatxoak / Txabierroak

Matxiategi, 1 Tfnokak: 76 39 53

Deco-Textil


ZANGITU

Etixerako lantzeria
Alfonbra nazionalak eta ekialdekoak
Bisiloak, tapizak, etab.

Herri lagunak 3 eta 5 ☎ 76 08 69



Bizkaia Etorbidea, 1
etxabea



Tfnoa: 77 14 24



■ Aranzadi Ikastolaren jaialdia

Ostiralean **Aranzadi Ikastolaren XXV. urteurrena** ospatzeko jaialdia izan zen Frontoian. Guztira, 750 ikasle inguruk hartu zuten parte eta Udal Pelotalekua ia toperaino bete zuten ikusleek primeran igaro zuten arratsaldea. Besteak beste, bertsolariak, kantariak, musikariak eta dantza saio bikainak prestatu zituzten Aranzadiko ikasleek. Datorren urtetik aurrera ekainaren 21a (Aranzadi Ikastola ofizialki eratu zen eguna) Ikastolaren eguna izendatu nahi da. Zorionak!!


■ 1936an jaiotakoak

Ohiturari jarraituz, joan zen ekainaren 8an **1936an jaiotako bergararrek** euren anaiarteko eguna ospatu zuten. Sierbetan meza entzun ondoren, argazkia atera eta jarraian Antxonin bazkaria izan zuten. Guztira, 35 lagun inguru bildu ziren **Miguel Sagastume, "Urkiko magoa"** soinu-joleak alaitutako bazkarian.



■ Alai Taldearen bazkaria

Alai Taldea abesbatzakoek bazkaria egin zuten **Altzasu Elkartean** zapatuan, taldearen 25. urteurrena ospatzeko. 48 bat lagun, taldeko kideak eta hauen emazteak, bildu ziren mahaiaren inguruan. Bazkaria, **Jabier Mendizabal "Surra" k**, Altzasuko sukaldari "ofizialak", prestatu zuen eta bazkalostean, ondo jan ondoren, kantu batzuk abestu zituzten. Igandean San Martzialen kantatuko dute jendaurrean. Zorionak!!



Ari ✓ an Bodega eta Hornikuntzak, S.L.

Ardoak

López Ojeda

Bodegak

San Martzialetarako ARDOA eta GARAGARDOA

ANTIA

HARATEGIA URDAITEGIA

Txahal, idi, txerri, bildots, untxi eta baserriko oilaskoak.

Matxiategi ☎ 76 15 09

■ Nagusien festa



Aste honetan zehar nagusien festa ospatu da Jubilatuetan. Astelehen, astearte eta asteazkenean izandako toka, bolo eta igela txapelketetan **Jose Arakistain, Felix Eguren** eta **Evaristo**

Txintxurreta izan ziren irabazleak. Atzo, berriz, bingo izan zen eta gaurko merienda eta dantzaldia iragarrita zegoen. Bihar larunbata, San Pedro eguna, 12etan Sierbetan meza izango da, ondoren Jubilatuetako abesbatzak emanaldia eskeiniko du eta jarraian ardoa eta salda banatuko dira. Datorren asterako ere hainbat ekitaldi iragarri dira: asteartean festa izango da, ostiralean San Martzialera igoera eta aste osoan zehar eskulan eta pintura taldeen erakusketa.

Zertan dihardute ba?



Unai Lopez

17 urteko ikasle bergararrak, Euskal Herriko beste 25 ikaslerekin batera, Euskadiko Batxilergo Sari Nagusia eskuratu du. Unai diploma eta atzerrian hizkuntzak hobetu ahal izateko beka eskuratu du. Hori dela eta, uztailaren 10ean Estatu Batuetara joango da hilabetez ingelesa ikasteko. Saria jasotzeko ezinbestekoa zen REMeko lehen hiru kurtsoetan gutxienez 8,5eko media ateratzea. Euskal Herritik 500 ikasle aurkeztu ziren azken frogara. Unai Ingenieritza ikasketak egingo ditu datorren urtean Arrasaten.

■ Dantzariak

Igandean Seguran jokotutako Euskadiko XX. Dantza Askatuko txapelketan bergararrak primeran aritu ziren: **Aitzol Ena**, Nagore Zigandarekin batera, laugarren geratu zen, **Asier** bere anaia bosgarren Laura Carpinterorekin eta **Maite Lazkano** eta **Jon**



Aranburu seigarren geratu ziren. Horrez gain, Edu Muruamendiarazek aurrekua eskeini zien omendutako epaileei eta txapeldun izandakoek oroigarri bana jaso zuten, tartean **Amaia Agirre** eta **Edu Murua** bergarrek eta **Amaia Agirre** eta **Juantxo Urbieto** osintxuarrek. Angiozarko trikiti eskolakoak ere Seguran izan ziren.

ARGI PLASTIC
 PVC, aluminio termikoa, egurra, poliuretanoa...
 Leihoak, atek, manparak...
 Eska ezazu aurrekontua konpromezu barik
 Erakusketa: Masterroka 14, behea BERGARA
 Tfnoa: 76 55 02 Faxa: 77 11 30

BOLUN
GANTXEGI mertzeria
 DENDA TOKIZ ALDATU BEHAR DUGULA ETA,
 UMEEN JANTZIAK ERDI PREZIOAN
 Bolu, 28 ☎ 76 00 79

Mari Karmen Leturia

Mari Karmen Leturiak gehien maite duen jaia da San Martzial eguna. Betidanik joan izan da, nobixoarekin lehen zita ere San Martzial egunean izan zuen, eta sekula ez du galtzen. Datorren asteko San Martzial txikira ere joango da, beti bezala.

- Zer dute San Martzialek?

- Sagratuak, oso garrantzitsuak dira, Pazkuak baino gehiago.

- Noiztik joaten zara San Martzialetara?

- Gutxienez 40 urtean. Ezkon bidaia egin genuenean abioia probatzeko asmoa genuen, baina San Martzialetarako iritsi ahal izateko Talgoa hartuta etorri ginen.

- Sekula huts egin duzu?

- Olatz eta Ane, alabak, jaio zirenean; hilabete t'erdi zuten San Martzial egunean eta ez ginen joan.

- Asko aldatu da?

- Lehen gazteak eta ez ziren hainbeste joaten, erdel dunak ere ez, mahairik ez zen egoten, lurrean garo gainean jaten zen...

- Letaniara joaten zara?

- Astean denean beti; aurten domekan tokatu denez, ez.

- Nortzuk joaten zarete?

- Koinatuak eta lagunak, 12-14 bat.

- Zer gustatzen zaizu gehien?



“Ezkon bidaian abioia probatzeko asmoa genuen, baina San Martzialetara iristearren Talgoz etorri ginen. Alabak jaio ziren urtean huts egin genuen, San Martzial asteburu zurian tokatzen denean letaniara beti joaten naiz.”

- Trikitixa dantza egitea.

- Eta gutxien?

- Argi ibiltzeko eguna da, San Martzial ere mozkorra ei zen, baina lagun bat gehiegi edanda ikusteak pena ematen dit.

- Menu berezia eramaten duzue?

- Maria Luisak, koinatak, egindako karakolak eramaten ditugu beti. Nik normalean ez ditut jaten, baina bereak bai, oso onak dira eta.

- Biharamonean bixamonik izaten duzu?

- Haundia, bestetan baino gehiago edaten da eta.

- Bergarako toki zatar bat?

- Bizitzeko Bolu ez zait asko gustatzen.

- Labegaraieta ala kalea?

- Labegaraieta. Bista ederrak, paseoak, kiroldegia... ditugu. Kalera ez nintzateke joango.

- Telebista aurrean lo hartzen duzu?

- Ez, gainera gutxi ikusten dut. Zer dago ba telebistan?

- Zein kantuk ekartzen dizkizu oroimen bereziak?

- 12 cascabelesek, nobixotan plazan bueltaka batean ibiltzen ginen.


- Zer da ikusi ezin duzun janaria?

- Jaten dut, baina bakailaoa jaten ez dut ikasi.

- Negar egin duzun azken aldia?

- Olatzek, alabak, Gorka izan duenean.

ARREGUI, E.M.



ARROZTEGIA

- AROZLAN MEKANIKOAK
- SUKALDEKO ARMAIRUAK
- HORMA ARMAIRUAK
 - ATEAK, etab.
 - TARIMAK-PARKETAK
- NEOPRENOZKO JUNTADUN EGURREZKO LEIHOAK
- PVCzko LEIHOAK

Urteaga, 20 ☎ 76 11 73

Erakusketa: Bidekurutzeta, 38

DENA
100etik

ZURE OPARIENTZAKO

Simon Arrieta, 3

SIRIMIRI
jatetxea

PINTXO BEROAK,
EGUNEKO MENUA, KARTA.


Barrenkale, 3 ☎ 76 59 19

Masterreka 24

Nepal, India eta Hego
Amerikako jantziak

Masterreka, 24 BERGARA

ITXASMENDI



ERREKADISTA

Masterreka, 24
BERGARA

☎ 76 13 61

EGUNERO DONOSTIA, BERGARA, ARRASATE,
ARETXABALETA, ESKORATZA eta OÑATIRA.

ETXEBIZITZA

Pisua alokatzen da Fuen-
girolan. ☎ 76 05 37.

Pisua salgai Osintxun.
Erdi amueblatuta, argitsua.
☎ 76 17 27/55 98 (gauz).

Pisua salgai Koldo Eleizal-
den. ☎ 76 09 37.

Pisua alokairuan hartuko
nuke. ☎ 76 43 22.

Ganbara bat behar dut
bizitzeko. ☎ 76 39 65.

Pisua salgai Bolun. 100
metro karratu. ☎ 76 22 72.

Pisua alokairuan hartuko
nuke. ☎ 76 25 31.

Estudioa alokatzen dut
Benidormen. ☎ 76 23 43.

Berriztutako **ganbara** San
Pedro kalean salgai.
☎ 76 24 05.

Garajea salgai San Loren-
tzon. ☎ 76 58 28.

Garajea salgai Boni Las-
kurainen. ☎ 76 47 67.

Pisua salgai Frontoian.
160 m2. ☎ 76 24 42.

Osintxun buhardilla bat
salgai. ☎ 76 15 36.

Pisua alokairuan San An-
tonion. ☎ 76 21 39.

Pisua salgai Mugertzan.
☎ 76 53 79.

Pisua alokatzen da Zu-
biaurren. ☎ 76 13 85.

DENETARIK

Kotxe silla salgai.
☎ 76 58 84.

Denda-remolkea salgai.
☎ 76 37 82.

Otsein labadora salgai.
☎ 908 67 09 10 (Markos).

Zaldi bat konpartitu nahi
duzu? ☎ 76 30 01 (Rene).

Imar denda-remolkea sal-
gai. ☎ 76 58 62 (gauz).

Ford Fiesta kotxea sal-
gai. Egoera onean.
☎ 76 33 26.

Trialsineko Monty bizi-
kleta salgai. Egoera one-
an. ☎ 76 56 13.

Imar karro-denda salgai.
190.000 pezeta.
☎ 76 59 56 (gauz).

Segamegadrive konsola
salgai. ☎ 76 23 17 (Mikel).

Nissan Vanette (SS-AK)
salgai. ☎ 21 18 55.

Mendiko bizikleta sal-
gai. ☎ 76 51 55.

Sofa bat salgai. 20.000 pe-
zeta. ☎ 76 64 71.

Karakol eskilara salgai.
☎ 76 14 84.

Mastin txakurkumea sal-
gai. ☎ 76 54 26.

Ford Sierra kotxea (SS-
AD) salgai. ☎ 76 33 10.

Neoprenozko ziklista
txaketa salgai. M neurri-
koa. ☎ 76 52 31.

LANA

OHO eta BBB klaseak.
☎ 76 42 08 (Nere).

Ingeles klaseak.
☎ 76 40 89 (Gemma).

Ingeles klaseak ematen
dira. ☎ 76 04 65.

OHO eta ingeles klaseak
uztailean (goizez).
☎ 76 17 18 (Jesus).

BBB eta unibertsitate maila-
ko klaseak. ☎ 76 35 37.

BBB eta UBiko klase parti-
kularrak. ☎ 76 20 04.

OHO eta BBBko klaseak
ematen ditut. ☎ 76 33 26.

Haurrak zainduko nituz-
ke. ☎ 76 18 75.

OHO klaseak ematen di-
tut. ☎ 76 24 42 (Amaia).

C2 gidatzeko karneta
duen mutil batek lan egin-
go luke. ☎ 78 34 43 (Manolo).

Mate, fisika eta diedriko
klaseak. 8. maila, selektibi-
tatea. ☎ 76 24 31 (Eneko).

Etxeko lanak egin eta
haurrak zaintzeko neska
euskalduna behar da.
☎ 76 02 59.

Emakume euskalduna
behar da 4 urteko haur bat
zaintzeko. ☎ 76 51 23.

Kimikako 5. mailan ari
den ikasle batek lan egin
edo praktikak egingo li-
tuzke. ☎ 76 20 04.

Irakasle lizentziatu batek
klaseak ematen ditu Bolun.
☎ 76 47 43.

IZADI PILI GISASOLA

Zurradero, 2
behea.
☎ 76 58 83

Santiveri

Osasun eta Dietetikan
espezializatutako zentrua

iRUDI

Erlojudenda
Bitxitegia

Ibargarai, 2
☎ 76 51 65

ARREGI

Eraikuntza
materialeak

Biltegia Tellerian, Labegaraietan.
Tfnoa: 76 27 93

AGOITZ

Tapizdenda

San Lorenzo, 25 BERGARA
Tfnoa: 76 18 23


POL-POL

Taberna

☎ 76 07 78



BONOFOTOA



Ana jauregi

Ana Jauregi jaso du BONOFOTOko saria, aurrekoan egindako galderak berak asmatu dituelako eta ondorengo zozketan bere txartela atera delako. Argazkian agertzen zen ermitaren izena eta zein auzotan dagoen galdetzen genizuen eta erantzun zuzena **San Martzial ermita eta Goi-auzoan** zen. Beraz, aste honetako 10.000 pezetak **Ana Jauregi**rentzat dira. Zorionak!!

Non aurki ditzakegu bi iturri ezagun hauek?

Izena: _____ Abizena: _____ Tfnoa: _____

Saria
10.000 pzta.

Moztu paper hau eta
ekarri astebete baino lehen

BERRIGARA
Errotalde Jauregia Bergara

Ipintzako Adin Mugarik Gabeko Futbol Txapelketa

EMAITZAK

MONGATXURRAK-PATXARAN TEAM	3-1
AMILOTX-A ZE FLAXA	0-0
GUADALEST-LA JUVE	1-4
ANGIOZAR-SHAKTALE	1-1
MATXAKATEGI-BILDURBAREK OPEL/LAM	1-2
ARLOTEAK/OILAGORRA-PAOK	3-0
ALTOS PORNOS-FACUTA	2-2
XURRUPAK-EZINLEIKE	0-1
MONGATXURRAK-SHAKTALE	3-2
LA JUVE-ANGIOZAR	2-3

PARTIDUAK

Ostirala 28

19:15: FACUTA-XURRUPAK
20:30: ARLOTEAK/OILAGORRA-EZINLEIKE

Astelehena 1

19:15: BILDURBAREK OPEL/LAM-ALTOS PORNOS
20:30: PAOK-MATXAKATEGI

Asteartea 2

19:15: AMILOTX-MONGATXURRAK
20:30: GUADALEST-PATXARAN TEAM

Asteazkena 3

19:15: ANGIOZAR-A ZE FLAXA
20:30: SHAKTALE-LA JUVE

Osteguna 4

19:15: ALTOS PORNOS-PAOK
20:30: MATXAKATEGI-ARLOTEAK/OILAGORRA



SAILKAPENAK

TALDEAK	P	J	G.A.	G.K.
1. MONGATXURRAK	16	6	20	4
2. ANGIOZAR	11	6	12	7
3. LA JUVE	10	6	15	11
4. AMILOTX	9	5	6	2
5. A ZE FLAXA	8	5	13	5
6. SHAKTALE	7	6	19	11
7. GUADALEST	0	5	2	23
8. PATXARAN TEAM	0	5	4	25

TALDEAK	P	J	G.A.	G.K.
1. BILDURBAREK OPEL/LAM	13	5	14	4
2. ARLOTEAK/OILAGORRA	11	5	12	4
3. MATXAKATEGI	7	5	5	5
4. EZINLEIKE	7	5	7	11
5. XURRUPAK	7	5	4	4
6. ALTOS PORNOS	6	5	7	5
7. FACUTA	4	5	6	8
8. PAOK	0	0	0	0

JOKOZ KANPO



DAVID MAESTRE

AMILOTX TALDEKOA
ETA MARRAZAINA

Zer moduz orain arte jokaturako partiduetan?

Nahiko gaizki. Emaitza normalak lortu ditugu, baina garrantzitsuena ondo jokatzea eta pasatzea da.

Zure jokoarekin pozik?

Ez oso pozik. Urte osoan ez zait ezer irten eta orain berdin jarraitzen dut.

Ze maila dago txapelketan?

Betiko, urtero talde berdinar baitaude. Multzo bakoitzean bi talde ziur sailkatuko dira eta besteek gelditzen diren postuak eskuratzeko borroka egin behar dute.

Irabazteko talde favoritoak?

Bildurbarek eta Mongatxurra.

Arbitraiekin gustora?

Ez dago jende asko antolaketan eta intentzio onenarekin ibili arren, beti daude haserreak eta protestak. Ni Antolaketa Batzordean sartuta egon arren, protestatzen dut...

Finala Agorrosinen?

Oso ondo egongo litzateke. Finala politagoa izango litzateke eta joku gehiago ikusi ahal izango litzateke.

Marrazain lanak egiten arazorik izan al duzu?

Ez, jendeak protestatzen du, baina ez da arazorik izaten.

Amilotxek zer egingo du?

Uste dut finalerdietan izango garela, baina finala jokatzea oso zail ikusten dut, aurtan ez gabiltzalako finegi.

GOLEGILEAK

7 gol

Ibai Elorza. Angiozar.

6 gol

Xabier Zangitu. Mongatxurra.

5 gol

Patxi Osa. Shaktale.

4 gol

Iñaki Arrieta. Bildurbarek Opel/Lam

Jabi Ibarra. A Ze Flaxa.

Iban Blanco. La Juve.

Nesken futbito txapelketa

EMAITZAK

POTZU TA ZAPABURUAK-POWER RANGERS	7-2
GU GEU-BLUE STARS	2-4

PARTIDUAK

LARUNBATEAN MIGUEL ALTUNA INSTITUTUAN

11:00: BOST TABERNA-BOKAGE
12:00: POWER RANGERS-GU GEU

SAILKAPENA

TALDEA	P	J	G.A.	G.K.
1. POTZU TA ZAPABURUAK	12	4	19	4
2. BOST TABERNA	3	2	4	4
3. GU GEU	3	3	6	6
4. BOKAGE	3	2	3	3
5. POWER RANGERS	3	3	4	11
6. BLUE STARS	3	4	7	13



Power Rangers taldea Ainara Garitano, Edurne Azuara, Naiara Polvorosa, Maite Alvarez, Nuria Sanchez, Ainhoa Altuna, Jone Azkarate, Uxue Lazkano eta Agurtzane Letek osatzen dute. Txapelketako favoritoetakoak dira.

Labegaraietako Kopa Txapelketa

KOPAKO FINALA

LARUNBATEAN LABEGARIAIETA KIROLDEGIAN

12:00: MONGATXURRAK-ERROTAGAIN

FINALAREN OSTEAN SARI BANAKETA EGINGO DA.

ANTOLAKETA BATZORDEAK TALDE HAUETAKO

ORDEZKARIAKI KIROLDEGIRA SARI BANAKETARA

AGER DAITEZELA ESKATU DU:

BAR CANALEJAS, JAUJA OH ZEREZOS, A ZE FLAXA,

SOROPOTROAK, EZINLEIKE, GUADALEST, FAC ETA

XURRUPAK.

Bergarako karatekak bikain

Igandean bukatu zen Bergara Karate Elkartek antolatutako klubuen arteko liga. Hiru jardunaldi jokatu ostean bergararrak izan dira nagusi. Gipuzkoa eta Bizkaitik etorritako 6 talde aritu dira lehian. Lehenengo postuan, esan bezala, bergararrak sailkatu dira. Bigarren, Durangoko Nevers taldea izan da eta 3. Matiena taldea. Miguel Galvan Bergara Karate Elkarteko kidea oso pozik agertu da egindako lanarekin: *"Helburua kirolarien parte hartzea bultzatzea zen eta bori lortu dugu. Jende askok hartu du parte"*.

Espainiako txapelaldunorde herriko neska gimnastak

Aranzadi Ikastolako gimnasia erritmikoko alebin taldeak bigarren postua eskuratu zuen Palma de Mallorcan jokatutako Espainiako Eskolarteko Txapelketan. Alba Maestre, Amaia Torre, Ane Miren Fernandez, Aintzane Narvaez, Jaione Igarza eta Elisabet Agirrek osatu zuten taldea eta Alicia De Cesar entrenatzaileak adierazi digunez, *"taldeak oso maila altua erakutsi zuen, eta han zeuden talde guztiek garbi zekuten gure taldea izan zela onena, baina epaileek Madrilen alde egin zuten. Erabakiarekin gure desadostasuna adierazteko dominak ez genituen lepoan jarri"*.



Oso pozik daude ostiralean frontoian izandako harrerarekin.

Ostiralean Aranzadi ikastolaren 25. urtemuga ospatzeko jaian omenaldi beroa jaso zuten Udaleko ordezkarien eta ikastolako partaideen aldetik. *"Elkartek aurrera egin*


nabi badu laguntza gehiago behar du. Entrenatzeko ordu gutxi dauka gu kiroldegian eta beste gimnasia talde batzuekin konparatuz erdia entrenatzen dugu".



Frontenis txapelketako lau onenak.

Jose Caballero arrasatearra, Frontenis Txapelketako irabazle

Jose Caballero arrasatearrak irabazi du Udal Kirol Zerbitzuak antolatu duen Lehenengo Frontenis Txapelketa. Joan zen zapatuan jokatu zen finala eta Caballerok 30 eta 25 irabazi zion Xabier Albusua bergararrari. Hirugarren postuan Karmelo Barcala sailkatu zen, Jokin Ramajo gazteari 30 eta 19 irabazi ondoren. Apirilean hasi eta joan zen zapatuan amaitu zen txapelketan 14 lagunek hartu dute parte, bi multzotan banatuta. Lau onenek, trofeoa, kamiseta eta kartera bana eskuratu zuten larunbatean sari modura. Antolatzaileak gustora geratu dira txapelketak izan duen erantzunarekin.



PINTURAS BERGARA S.L.

- INDUSTRIARAKO PINTURAK
- APAINKETARAKO PINTURAK
- GARBIKETAK
- ERROTULOAK

Aranerreka, 32 behea BERGARA. Telefonoa eta faxa: 76 11 40

TXINPARTAK

**Jon Unamuno 2.
Gipuzkoako
itzulian**

Jon Unamuno txirrindulari bergararrak 2. postua lortu du jubenil mailako Gipuzkoako itzulian. Irabazlea Mikel Roldan atxabaltarra izan da eta Unamuno segundu bakar batera geratu da, lau etapa korritu ondoren. Bestalde, joan zen igandean Bergaran jokaturako lehen mailako kadeteentzako San Martzial Sarian Jon Mendizabal bergararra 7. sailkatu zen eta Ander Agirre 9. postuan.

**Kotxe piloatzaileak
Montmelora**

Asteburuan zehar Bartzelonako Montmelo zirkuitoan Pablo Irizar eta Martin Egaña kotxe gidariak ZX Koparen lasterketa batean parte hartuko dute. Orain arte txapelketako 3 lasterketa jokatu dira eta bi gidariak aurrean ibili dira.

**Aitor Zabaleta
Asturiasen nagusi**

Aitor Zabaleta kotxe gidari bergararrak joan zen igandean, Asturiasen, Espainiako Txapelketarako puntuagarria den Santo Emilianoko igoeran garaipena lortu zuen. Aitor Zabaletak orain arte jokatu diren 3 lasterketak irabazi ditu.

Jose Mari Zezeaga

Euskadiko txapelketaren bila

Jose Mari Zezeagak Titinekin batera, partidu erabakiorra jokatu du larunbatean Alustiza-Bernaren aurka. Euzko Arretzek zer egiten duten zai egon behar du Euskadiko Txapelketaren finala jokatze bidean, gero irabazi arren.

- Zela ikusten duzu biharko partidua?

- Ez da partidu erraza. Ikusi da bikote guztiak antzera dabilzala indarrez. Gu irabazten saiatuko gara eta gero Biasteriko emaitzaren zai izango gara.

- Partidu aurretik zela jokatu duzuen pentsatu duzue?

- Bai, hasieran ideia batzuk eramango ditugu, baina gero frontoian ikusiko da... Gure jokoa, nik atzean dominatzen saiatu eta Titinek aurrean tantua errematatzea izango da.

- Ze pelota aukeratu dituzue?

- Nahiko politikak dira. Txarrena da frontoia zestatkoa dela eta horiek eskuz jokatze soso samarrek eta arraroak izaten dira. Eurenak baino pelota arinagoak aukeratu ditugu. Euren indartsuagoak hartu dituzte, Alustizak sakean min handiagoa egiteko.

- Partidua zerk erabaki dezake?

- Uste dut atzean ondo ibiltzen banaiz eta dominatzen badut, Titinek tantuak egingo dituela, Alustizak defentsa ona izan arren.

- Azken partiduetara

ko sasoi ona mantentzeko prest?

- Txapelketan oso suerte txarra izan dugu. Sailkatuta egon beharko ginateke. Orain, finalera sailkatze gure jokoa baino garrantzitsuagoa suertea izango da.

- Orokorrean zela joan da txapelketa?

- Lizarrako partidua izan ezik, beste hirurak oso ondo jokatu ditugu. Halere, txapelketa aurretik Titinek eta biok 3 aldiz bakarrik jokatu dugu elkarrekin eta oso gutxi ezagutzen dugu elkar.

- Titinekin?

- Hasieran nahiko gaizki elkar ez guelako ezagutzen, baina poliki-

poliki bagoaz moldatzen.

- Espero zenuen El-koro eta Capellanek egin duten txapelketa?


- Aitorrekin egon nintzen berbetan eta berak bazuen esperantzarik. Capellanek ere maila ona erakutsi du. Ea azkenengo partidua ere irabazten duten.

- Etzanizekin batera jokatzea gustatuko litzazuke?

- Bai, txapelketa honetan elkarrekin jokatze-ko ilusio handia genukan. Halere, urteren batean uste dut elkarrekin jokatuko dugula.

- Bihar zer?

- Irabazi, eta gero telebista ikustera.



"Lizarrako partidua izan ezik, besteak oso ondo jokatu ditugu".

"Suerte txarra izan dugu. Sailkatuta egon beharko ginateke"

San Martzialak, 1950 eta 1960

Igandean, San Martzial eguna, herriko jairik arrakastatsuenetakoa, ospatuko da. Tradizio haundiko jaia izan arren, azken urteetan gorakada nabaria ezagutu du.

Baina lehen ere herritar ugari igotzen ziren San Martzialera lagunartean primeran igarotzeko. Beste garai batzuk ziren... eta orduko eta gaur egungo San Martzialak konparatzeko mendearen erdialde inguruko bi argazki ekarri ditugu aste honetan.

Badirudi, argazkian horrela antzematen da behintzat, orduko San Martzialak lasaigoak zirela baina orduan ere erromerian dantzaldi ederrak egingo zituzten...

Seguru aurten ere, eguraldiak laguntzen badu, giro bikaina izaten den. Giroa pizten joateko, bi argazki.

Goiko argazkia 1952 urtekoa da eta bertan agertzen direnak hauek dira, ezkerretik eskumara:



Argazkiak: Manuel Lijo eta Jesus Arregi.

Atzean: Jose Miota eta Manuel Lijo.

Aurrean: Vinicio Berasategi, Felix Berraondo eta Iñaki Mujika.

Beheko argazkia, berriaz, 1960. urte ingurukoa da eta bertan Javier Retegi, Jose Mari Aseginolaza, Genaro Manso, Antonio Azkarate eta Jesus Arregi ikus ditzakezue.

ZUBIETA

elektragintza

MOTORREN BOBINAKETA
ERA GUZTIETAKO INSTALAZIOAK

Kruz Gallastegi, 2 behea
☎ 76 23 48



San Antonio, 5 BERGARA ☎ 76 20 21

zumelaga

JATETXEA

IGANDETAN
ZABALIK!!

ZERBITZU, KALITATE, KANTITATE ETA PREZIOAN PAREKORIK EZ!!



Leiho 120x120 cm.
PVC: 72.990 pzta.
 Monoblock-a eta pertsiana.
 Instalazioa barne!!

IRAURGI

GURE LEIHO BERRIAK

- PVC KÖMMERLING, VEKA
- EGURRA-ALUMINIOA (Sapellia, Haritza, e.a.)
- APURKETA TERMIKOKO ALUMINIOA
- WENT POLIURETANOA

10 urteko garantia

*Eskaera egin eta 3 asteren barruan leiho berriak izango dituzu
 Eskatu aurrekontua konpromezurik gabe
 Prezio ezinhobeak*




Balkonera
 120x200 cm.
PVC: 94.445 pzta.
 Monoblock-a eta pertsiana.
 Instalazioa barne!!

Kruz Gallastegi, 7 BERGARA
 ☎ 76 03 96

IRAURGI leihoak betirako

San Francisco, 8 TOLOSA
 ☎ 65 23 25



ARRAÑAGA

A U T O E S K O L A

Artekale, 22 ☎ 76 16 63
 BERGARA

Santa Ana ☎ 74 10 11
 ELGOIBAR

HALTZARI

FAGOR ALTZARIEN BANATZAILE BAKARRA

Bolu 24 behea BERGARA (Gipuzkoa). Telefonoa eta faxa: (943) 76 30 57



FILA modeloa



NALIA modeloa



ONDA modeloa



OXFORD modeloa



ACQUA modeloa



SAVOY modeloa



6 URTEKO GARANTIA



FAGOR

Sukaldeko altzariak



Zatoz sukalde berriak ikustera!!